

ALEGIA / Txikienei zuzenduriko ipuin kontaketa liburuaren eguna ospatzeko

ALEGIA. DV. Liburuaren Nazioarteko Eguna genuen atzokoa. Jakina denez, Miguel de Cervantes eta William Shakespeare idazle unibertsalak 1616. urteko apirilaren 23an hil zirelako ospatzen da Liburuaren Nazioarteko Eguna.

Jendeak gero eta gutxiago irakurtzen duela etengabe errepikatzen den garai honetan, gero eta garrantzitsuagoak dirudite irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzek. Sorkuntza oso oparoa eta anitza da. Euskal Herrian bertan, esate baterako, literatura sorkuntzak oso urte onak bizi ditu, maila handiko idazle asko eta asko baitaude. Baina ezin gauza bera esan irakurleei buruz. Eskaintza eta eskariaren artean badirudi nolabai- teko desoreka dagoela. Horrela bada, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu eta aldi berean, txikienengan irakurtzeko grina piztu asmoz (txikitan ikasitakoa ez omen da hain erraz ahazten eta), ipuin kontaketa saioa antolatu zen atzo Alegian.

Tradizioa, orain ofizio

Azken urteetan, gero eta ipuin kontalari gehiago dabil Euskal Herrian zehar ipuinak kontatzen. Garai batean nork bere etxean burutzen zuen tradizioa, badirudi orain kalera atera dela, ipuin kontalarientzat ofizio bihurtuz. Eta hori horrela bada, eskaria dagoelako izango da, noski. Eskolak eta liburutegiak izan ohi dira normalean ipuin kontaketen kokaleku, eta haur talde politak biltzen dira bertan, ipuin klasiko zein berriak entzutera. Alegiako atzoko saioa arrakasta horren adibide da. Kanpoan sekulako giroa, udako egunik ederrenei batere inbidiarik ez izateko modukoa. Baina 17:30ak jotzerako udal liburutegiko haurren gelan neska mutikoak zain zeuden, lurrean eserita, Lur Korta noiz agertuko.

Lur Korta oiartzuarra izan zen, hain zuzen ere, atzo herriko txikienei ipuinak kontatzera etorri zena. Esan bezala, zain zituen umeak, eta kolorinetako maleta mahai gainean utzi eta berehala ekin zion ipuinak kontatzeari.

Ipuina

Kristina printzesaren istorioarekin hasi zuen Lurrek atzoko saioa. Kristinak beti berak nahi zuena egin behar zuen, hasi zen kontatzen, ' nik nahi dut hau ' , edo ' nik nahi ditut makarroiak jan ' , horrela zebilen beti Kristina. Egun batean Kristinari bere aitak mutil bat aukeratu behar zuela esan omen zion, berarekin ezkontzeko. Josu, Eñaut eta Eneko ziren atzokoan mutilak. Baina Kristinari Josuren ipurdia, Enekoren ilea eta Eñauten hortzak gustatzen omen zitzaizkion (harritzekoa bada ere, Josuren ipurdiarenak sekulako grazia egin zien umei...).

Kristinak hirurekin ezkondu nahi omen zuen, baina hori ezinezkoa zela

ikusita zera esan omen zien: Eñaut, Eneko eta Haritz, joan zaitezte urrutira, eta ekarri niri opari bat. (Haritz ez, Josu, berehala publikotik ume batek; nork dio umeek ez dutela arretarik jartzen...?). Hiruretatik oparirik bereziena ekartzen didanarekin ezkonduko naiz, esan omen zien Kristinak. Eta hantxe joan ziren Eñaut, Eneko eta Josu..., baina nora? Ba al dakizue nora joan ziren?, Lurren galdera. Bartzelonara, ume batek. Ez, urrutirago!, Lurren erantzuna. Espaziora!, beste ume batek. Ez, hain urruti ez, Lurrek. Afrikara, hirugarren batek. Urrutiago, berriz ere Lurrek. Halako batean, Txinara!. Eta Lurrek, Bai, Txinara!

Iritsi ziren bada hiru mutilak Txinara, eta hantxe hasi omen ziren, Kristinarentzat oparirik bereziena aurkitu nahian. Eñaut izan zen oparia erosi zuen lehena, kontatu zuen Lurrek. Ba al dakizue zer erosi zion?. Eraztuna, ume batek. Ez, Lurrek. Afrika, beste batek. Ezta ere, Lurrek. Ispilu bat erosi zuen. Ispilu berezia zen ordea, Eñautek nahi zuen pertsona ikus baitzezakeen bertan. Zer ikusi nahi duzue zuek bertan?, galdetu zien Lurrek haurrei. Erantzunak, denetarikoa: Lehoia, printzesa, Olentzero, erregeak, Papa Noel....

Enekok, berriz, kolonia bat erosi zion Kristinari, baina kolonia berezia hau ere, hildakoak berpizten zituena.

Azkenik, Josuk kutxa txiki bat erosi omen zion. Kutxaren gainean jarri eta edonora joan zaitezke, esan zuen Lurrek. Nora joan nahi duzue?. Hemen ere umeen erantzun sorta bikaina: Frantziara, Ikaztegieta, Donostiara, Txinara, Japonera, Laguardiara, Saloura, Hossegorrera... (txukun gabiltz geografian behintzat).

Azkenean, joan ziren hiru mutilak Kristinarengana opariekin, baina honi, hirurak gustatu omen zitzaizkion, eta azkenean Kristinak hirurekin ezkontzea erabaki zuen, berriz ere, berak nahi zuena eginez.